

NAFARS S.KOOP-en ESTATUTUAK

1. KAPITULUA. INFORMAZIO OROKORRA

1. xedapena: izen soziala eta marka izena

Guk sortutako kooperatiba “NAFARS S. COOP ” gisa erregistratuko dugu, eta markaren izen komertziala ‘NAFARS’ izanen da.

2. xedapena: helbide soziala

- Helbidea: Ezkaba, 36 Iruñea-Pamplona
- Posta kodea: 31015
- Telefonoa: 848 431 030
- Posta elektronikoa: nafarsscoop@gmail.com



3. xedapena: kooperatibaren jarduera ekonomikoa edo zeregina

Beste enpresekiko salerosketa landuko dugu, eta horretarako:

- Produktuak erosi beharko ditugu.
- Ondoren, gure marka ezagutzera emanen dugu.
- Bukatzeko, produktuak saltzeari ekinen diogu.

4. xedapena: kooperatibaren iraupena

Gure enpresaren jarduera ekonomikoa ikasturtean (2020-2021) zehar burutuko dugu, eta maiatza aldera amaiera emanen diogu gure proiektuari. Gure proiektu maiatzean bukatzen da, baina ondo badihoa, ogasunean egin beharreko tramiteak egingo genituzke eta 0-tik hasiko ginateke.

5. xedapena: bazkide-langile izateko baldintzak

Klasera etortzen den edozein sar daiteke enpresan. Sartzean 3 euro jarri beharko ditu bakoitzak, jardueraren kide izan ahal izateko eta bertan parte hartzeko.

. xedapena: bazkideen betebeharrak

- Dirua jartzea ezinbesteko da: 3 euro.
- Falta gaitezke justifikatuta egonda. (piper egiten badugu ez)
- Enpresa batzarrean parte hartu behar da.
-
- Bazkideen jarrera aktiboa izan behar da, ideiak eman, lan egin, parte hartu,

ideiak proposatu eta besteen ideiak entzun eta baloratu.

- Gure artean hitz egiten duguna konfidentziala izatea, profesionaltasuna izan behar dugu.

7. xedapena: bazkideen eskubideak

- Batzarrean bozkatzeko eskubidea.
- Hasieran jarritako dirua berreskuratzeko eskubidea dugu
- Irabazitako mozkinen zati bat eramateko eskubidea.

2. KAPITULUA. SOZIJETATEAREN ORGANOAK

LEHENENGO SEKZIOA: BATZAR OROKORRAK

8. xedapena: osaketa (bazkideak)

June Landa, Pablo Lorea, Markel Sabuqui, Leire Arbizu, Unai Delgado, Miren Gorriz, Javier Valencia, Eloy Gomez eta Peio Lopez.

9. xedea: bilkura maiztasuna

AKO irakasgaiaren saioetan: asteazkenetan (2.orduan) eta ostegunetan (5.ordua) .

10. xedapena: akordioak hartzea

Edozein akordio onartzeko bazkideen arteko bozketa egingo da eta gehiengo absolutoak irabaziko du. Hala ere, gure arteko elkarlanean oinarrituko gara, guztion ideiak entzun eta baloratuko ditugu.

11. xedapena: kooperatibaren helburu nagusia

Enpresa eta merkatal jarduera ezagutzea izanen da helburua, baita beste enpresa guztiena bezala, dirua eta etekinak lortzea ere. Talde lanean jarduten ikastea eta gure komunikazio jarduerak hobetzea da.

BIGARREN SEKZIOA: KONTSEILU ERREKTOREA

12. xedapena: osaketa

Horrela antolatu gara gure enpresa aurrera eramateko.

- Zuzendaria: Pablo Lorea

- Zuzendari ordea : Unai Delgado
- Idazkaria: Peio Lopez
- Diruzainak (finantzak) : Javier Valencia (nagusia) eta Miren Gorriz (ordea).

3. KAPITULUA. KAPITAL SOZIALA

14. xedapena: kapital soziala

Bazkide bakoitzak 3€ jarriko ditu derrigorrez hasieran.

JUNE

PEIO

JAVI

LEIRE

UNAI

MIREN

MARKEL

PABLO

ELOY

15. xedapena: derrigorrezko hasierako ekarpena

1. Hasiera batean, bakoitzak 3€ jarriko ditugu. Gero diru gehiago baldin behar badugu, gehiago jarriko dugu.

16. xedapena: bazkideen erantzukizuna

Erantzukizun mugatua izanen dugu, bazkiede bakoitzak hasierako ekarpenera mugatuko da.

17. xedapena: irabazien erabilera. Lehenengo betebeharra

Kooperatibako bazkideek egindako ekarpena behin itzulita, irabazien %20 Paris 365 elkarteari emango diogu.

18. xedapena: irabazien erabilera. Bukaerako betebeharra

Behin bazkideei hasierako ekarpena itzulita eta behin irabazien %20eko Paris 365 elkarteari bideratuta, gure irabaziak taldea kohesionatzea helburu duen jarduera osagarri bat burutzera bideratuko da.

19. xedapena: galerak

Eman daiteke kasuren bat non euren produktuak ez dute inolako arrakastarik izanen eta dirua galdu egingo dugu. Bazkideok arduratu beharko gara galera horietaz, gure erantzukizuna baita enpresaren ekonomia kudeatzea.

4. KAPITULUA. KONTUAK ETA LIBURUAK

20. xedapena: kontuak

- Finantzaketaren arloan aritzen diren bazkideak arduratuko dira kontuak eguneratzeaz eta beste bazkideok ere parte hartuko dugu haien lana errazteko.

21. xedapena: elkartearen dokumentazioak

Kooperatibak honako liburuak eraman beharko ditu:

- Jardueraren akten liburua
- Egunkari liburua eta egoera balantzea
- Burokraziak eskatzen dituen paperak

5. KAPITULUA. LIKIDAZIOA

22. xedapena: kooperatiba desagertzearen zergatia

EJE proiektua amaitutzat ematen dugunean, maiatzan, gure kooperatiba desagertuko da.

23. xedapena: geratzen denarekin zer egin

Paris 365 elkarteari emango diogu ateratako etekinen %20, baita soberan geratzen zaizkigun produktuak ere. Gainontzeko lorpenak bazkideon artean banatuko ditugu, eta guztion arteko afaria prestatu ere.